



UDALBATZA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO EKITALDIKO AKTA, 2023ko EKAINAREN 17an EGINIKOA

HAUTATUTAKO ZINEGOTZI JAUN/ANDRE BERTARATUAK

Gentza Alamillo Udaeta jauna
Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna
Iratxe Parro Uzquiano andrea
Irantzu Apodaca Sánchez andrea
Prudencio Otegui Echevarria jauna
Karmele Población Martínez andrea
Iñigo Fraile Almanchel jauna

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamazazpian, bederatzia direnean, Udalbatza Osoa bildu da. Eta Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. eta 196. artikuluetan ezarritakoa betetzeko, Udalbatza eratzeko eta alkatea aukeratzeko bilkura egiteko, alboan aipatzen diren zinegotzi hautetsiak bildu dira. Hauek alde zuzenetik izendapen-agiriak aurkeztu dituzte, Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak emanak.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Idazkari andreak ekitaldia ireki du eta jarraian irakurri du Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195. artikulua, honela dioena:

" Ehun eta laurogeita hamabosgarren artikulua.

1. Udal-korporazioak bilkura publikoan eratzen dira hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean, zinegotzi hautetsien izendapenaren aurkako hauteskunde-auzietako errekurtsioa aurkeztu izan denean izan ezik. Kasu horretan, hauteskundeen ondoko berrogeita hamargarren egunean eratzen dira.

2. Horretarako, Adineko Mahaia eratuko da, ekitaldira bertaratu diren hautetsi nagusienek eta gazteenek osatua. Idazkaria Udalbatzako izango da.

3. Mahaiak egiaztatuko ditu aurkeztutako kredentzialak edo hautetsien nortasunaren egiaztagiria, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udalari bidalitako ziurtagirien arabera.

4. Aurreko eragiketa egin ondoren, Mahaiak eratutzat joko du Udalbatza, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo osoa badago. Bestela, bi egun geroago egingo da bilkura, eta Udalbatza osatuko da, bertaratutako zinegotzi kopurua edozein dela".

Ondoren, Adineko Mahaia eratu da. Ekitaldian dauden eta adinez nagusienak eta gazteenak diren kideek osatuko dute, eta idazkaria Udalbatzako idazkaria izango da, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2 artikulua xedatzen duenaren arabera. Beraz, Adineko Mahaia honako hauek osatuko dute: KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ and., zinegotzi hautetsi zaharrena, mahaiburu gisa; IRANTXU APODACA SÁNCHEZ and., zinegotzi hautetsi gazteena; eta NAIARA LAZPITA MARCOS and., Udalbatzako idazkaria.



Jarraian, Adineko Mahaiko kideek aurkeztutako kredentzialak egiaztatzen dituzte.

Kredentzial horiekin ados daudela, Adineko Mahaiak UDALBATZA ERATUTZAT EMATEN DU, honako kide hauek osatuta:

IZEN ABIZENAK

ALDERDI POLITIKOA

GENTZA ALAMILLO UDAETA JN.
IÑIGO PINEDO VADILLO JN.
MONTSE ANGULO SOLLOA AND.
ITXASO GORBEÑA ALLENDE AND.
UNAI CAMPO ARENAZA JN.
IRATXE PARRO UZQUIANO AND.
IZASKIN GARCÍA ARESTI AND.
IRANTZU APODACA SÁNCHEZ AND.
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA JN.
KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ AND.
IÑIGO FRAILE ALMANCHEL JN.

EAJ-PNV
EAJ-PNV
EAJ-PNV
EAJ-PNV
EAJ-PNV
AIARA BATUZ
AIARA BATUZ
AIARA BATUZ
EH-BILDU
EH-BILDU
EH-BILDU

Udalbatza eratuta geratu denez, ondoren, zinegotzi hautetsiek beren karguen jabetza hartu behar dute, HAOLoren 108.8 artikulua betetzeko, eta apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuari jarraituta; eta, horretarako, Mahaiburuak galdera hau egingo dio banaka hautetsi guztiei: “¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal, guardando y haciendo guardar la Constitución como norma fundamental?”; edo, euskaraz: "Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu zinegotzi karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzula?". Honen ostean, zinegotzi hautetsiek honako hau erantzun dute:

GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

IÑIGO PINEDO VADILLO jauna: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

MONTSE ANGULO SOLLOA andrea: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

ITXASO GORBEÑA ALLENDE andrea: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

UNAI CAMPO ARENAZA jauna: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

IRATXE PARRO UZQUIANO andrea: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

IZASKIN GARCÍA ARESTI andrea: legeak hala behartuta hitz ematen dut.

IRANTZU APODACA SANCHEZ andrea: legeak hala behartuta hitz ematen dut.



- PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jauna: Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ andrea: Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.
- IÑIGO FRAILE ALMANCHEL jauna: Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.

Ondoren, idazkariak alkatearen hautaketa arautzen duten arauak irakurri ditu, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan jasotakoak. Honela diote:

" Ehun eta laurogeita hamaseigarren artikulua.

Udalbatza eratzeko bilkura berean alkatea aukeratzen da, prozedura honi jarraituz:

a) Zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.

b) Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsia izendatuko da.

c) Gehiengo hori inork lortzen ez badu, dagokion udalerrian herriaren boto gehien lortu dituen zerrendako zinegotzia izendatuko da alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebaziko da.

100 eta 250 biztanle bitarteko udalerrietan zinegotzi guztiak izan daitezke alkatega. Hautagaietako batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hautetsia izendatuko da. Inork gehiengo hori lortzen ez badu, zinegotzien hauteskundeetan boto gehien lortu dituen zinegotzia alkate izendatuko da".

Zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak alkate kargurako hautagaiak dira. Hauek dira, hain zuzen:

HAUTAGAIAREN IZENA

TALDE POLITIKOA

GENTZA ALAMILLO UDAETA jn.

(EAJ-PNV)

IRATXE PARRO UZQUIANO and.

(AIARA BATUZ)

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jn.

(EH-BILDU)

Bozketa egin da jarraian, eta emaitza hau izan da:

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jaunak sei (6) boto lortu ditu.

IRATXE PARRO UZQUIANO andreak ez du botorik jaso.

GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunak bost (5) boto lortu ditu.

Ondorioz, Udalbatzako kideen legezko kopurua hamaika izanik eta legezko gehiengo osoa sei izanik, gehiengo absolutu hori PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jaunak lortu du, eta Aiarako Udal honetako alkate izendatu dute.



Kargua onartu ondoren, PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA jaunak kargua hartu behar du, zin egin edo hitz eman ondoren. Horretarako, mahaiburuak honako galdera hau egin du: " Zure kontzientzia eta ohoreagatik, zin egin edo agintzen duzu alkate karguak dituen eginkizunak, Erregeari leialtasuna erakutsiz, zintzoki beteko dituzuela, eta Konstituzioa, Estatuaren oinarritzko arau moduan, zaindu eta zainaraziko duzuela?"

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA alkate jaunak erantzun du: Euskal Errepublika lortu arte legeak hala behartuta hitz ematen dut.

Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 36.2 artikulua betetzeko, 2023ko ekainaren 16ko datarekin, alkateak Diruzaintzako Egoeraren berri eman dio Udalbatzari.

Udalaren Ondasunen Inbentarioari dagokionez, 1991ko dokumentu bat dago, urte asko daramana eguneratu gabe eta, beraz, ez da gaur egungoaren isla zehatza.

Iratxe Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu eta idazki hau irakurri du:

“Joan den maiatzaren 28an, hautestontzietara hurbildu ziren aiarrak argi utzi zuten gehiengoak aldaketa nahi zuela.

Boto gehien jaso zituen taldea EAJ-PNV izan zen arren, AIARA BATUZek eta BILDUK lortutako botoen baturak 64 boto gehiago zituen, eta auzotar horiek, gehiengoa bozkatzera joan zirenek, aldaketaren alde egin zuten.

AIARA BATUZ eta BILDUren arteko negoziazioak ez dira posible izan elkarrekin gobernatzeko, eta ez dugu akordio bat lortu gaurko bilkura honetarako. Horrek ez ditu emaitzak aldatzen, ez eta Aiarako bizilagunek hilaren 28an eskatu zutena ere.

AIARA BATUZen helburu nagusia gehiengoak haustea zen, eta hori dagoeneko eginda dago.

Gure ezustea izan zen boto gehien jaso zuen bigarren indarra izan ginela eta zinegotzi bat izatetik hiru izatera pasa ginela. BILDUK zinegotzien kopurua mantendu du eta AIARA BATUZek hirukoiztu egin du, EAJk galdu dituen bi zinegotzigoekin “geratu” baita.

Kanpainan, BILDUKo hautagaiek hau esan zuten, besteak beste:

- “Aiarak behar duen aldaketaren indarra delako, herriarekin eta herriarentzat konprometitutako pertsonak osatua” (Iñigoren argazkiko esaldia)

- “Gure herriek bizirik jarrai dezaten, Aiarak ideiak, taldea eta ekintzak behar dituelako, eta EH BILDUK indar hori adierazten duelako” (Laurenen argazkiko esaldia)

- “Gure herriaren beharrei erantzuten dien indarra delako” (Marianen argazkiko esaldia)

- “Kontzejuekin eta oposizioarekin modu irekian lan egiten duelako” (José Angelen argazkiko esaldia)

- “Gure konpromisoa gure herria aurrera eramatea eta administrazio-batzordeekin lan egitea delako” (Prudenen argazkiko esaldia).

AIARA BATUZen ez dugu izan Alkatetzara iristeko irrikarik, baina bai aldaketa bat lortzekoa. Azken lau urteotan egindako kudeaketa ez zaigu gustatu, eta uste dugu ez dela ona izan Aiararentzat; beraz, ezin dugu eredu horrekin jarraitu. Gure esku dago laneko ikuspegi eta dinamika hori haustea.

Gure botoarekin indar hori erakusteko aukera ematen dizuegu. Pruden, ABANTE!”



Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak hitza hartu du eta azaldu du gertatutakoa ustekabea izan dela bere alderdiarentzat, baina hor jarrita dagoen guztia bere asmoa izan da beti eta beti gauzatu nahi izan dute. Eta denekin parte hartzeko asmoa ere badu, baita oposizioarekin ere; beti egongo dira prest zinegotzi guztien aurrean eta herriaren aurrean nahi dutenerako, eta legegintzaldian bete-betean elkarrekin lan egin ahal izatea nahi du.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du osoko bilkura honetara etorri diren guztiei eta maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetan parte hartu duten guztiei eskerrak emateko, bereziki EAJ-PNVren hautagaitzaren aldeko apustua egin dutenei. Badakite zer gertatu den gaur osoko bilkura honetan, eta esan du badakitela Aiaragatik eta Aiararen alde lan egin behar dutela, eta lehen egunetik egin izan duten bezala horrela egiten jarraituko dutela.

Mahaiburuak aginte-makila eman dio alkate jaunari, eta eskerrak eman dizkie guztiei etortzeagatik.

Alkate jaunak bilera bukatutzat eman du bederatzia eta hogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin da eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamazazpian.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Prudencio Otegui Echevarría

IDAZKARIA,

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.